

Così Fan Tutte

Donostiako 52. Musika Hamabos-
taldiaren barnean, Mozarten
'Così Fan Tutte' opera izan ge-
nuen herenegun Donostiako Victoria
Eugenia antzokian, Prahako Antzoki
Nazionaleko Operak antzeztuta. Ordu
eta toki berean, asteartean, abuztuaren
20an, berriz izango da lan hau ikusteko
aukera.



Maria Bayo eta Lenka Swidova.

CARLOS VILLAGRAN



'Così Fan Tutte' operan parte hartu zuten bi kantari entsaio baten atsedendian.

CARLOS VILLAGRAN

Jatorrizko bertsioa oso-osorik

INAKI BASTARRIKA / DONOSTIA

Jakina denez, Teresa Berganza-
ren ordez Lenka Swidovak egin zu-
en Dorabellaren papera. Otto Sev-
cik-ek eszenaratutako obrak berri-
kuntza nabari bat izan du emanaldi
honetan, hain zuzen ere opera guz-
tia kantatu bait zen, normalean bi
edo hiru aria ez dira kantatzen, eta
horretaz gain Mozartek opera hone-
tarako idatzitako aria originala kan-

tatu zuen Christofer Robertson ipa-
rramerikarrak, Guglielmoren pape-
rean.

Mozartek Vienan 1790ean estre-
natu zuenean bigarren aria bat idatzi
zuen, azkoz ere errazagoa, baina
emanaldi honetan jatorrizko aria be-
rreskuratu da. Maria Bayo (Fiordi-
gili) oso ongi aritu zen eta txalo ugari
jaso zituen. William Watson teno-
reak aurreko egunetako sabeleko
minari gain hartuta Ferrandoren pa-

pela egin zuen txukun. Despina zer-
bitzariaren papera Gloria Fabuel
soprano valenciarrek egin zuen eta
Don Alfonso antzeztu zuena Carlos
Chausson aragoarra izan zen.

Ereski Abesbatza eta Euskadiko
Orkestra Sinfonikoa aritu ziren ema-
kumeen fidelitasunik eza gaitzat zuen
'Così Fan Tutte' ('Horrelakoxeak
dira emakume guztiak') operari aho-
tsa eta musika jarritz. Musika zuzen-
daria Ivor Bolton izan zen.

Opera bufoa baino gehiago

Hiru orduko opera batean,
drama guztiz sinesgaitz
batekin, publikoa denbora
guztitan adi, erne aurkitzen denean,
opera saio serio bat ikusi eta entzun
dugula esan dezakegu. Horixe izan
zen Victoria Eugenia
gertatutakoa.

Mozarten heriotzetik berrehun
urte betetzen direnean, zer esango
dugu Mozarten musikari eta
Mozart berari buruz orain arte esan
ez denik?

Zeinek, berak egiten zuen bezela,
lor dezake istorio sinesgaitz bati
iraupena eman bere musikarekin?
Hau egiteko, jenio baten
kapazitatea izan behar da;
Mozarten kasua.

Asko hitzegiten da opera honi
buruz. Opera hau zer dugu?

Napolitar estiloko opera bufoa
besterik ez dugu? (istorioa eta
pertsonaiak hartzen baditugu hala
dirudi).

Edo musika eta drama
honen bidez Mozartek zer bait
gehiago esan nahi digu? Neretzat,
dudarik gabe, Mozarten asmoa
azkeneko hau zen. Mozart bizi zen
gizartean, gizonen «libertateak»
amodiozko harremanetan,
emakumeenak baino hobeto
ikusten ziren. Mozartek ez digu
esango zer den ondo dagoena eta
zer gaizki baina emakumeak eta
gizonak berdinak garela argi uzten
digu.

Bestetik, Mozarten musikaren
ekilibrioa eta jariakortasuna



ANDONI SIERRA

inolako dudarik gabe geratzen
dira.

Eta interpreteak? Teresa Berganza
benetako atrakzioa zena bere
babestuarekin entzun ahal genuela
gaixorik dugu eta ez zuen abestu.
Baina azter dezegun kontzertu
bera, bere interpreteei buruz
hitzeginez.

Maria Bayo genuen sopranoa, oso
paper ona egin zuen ahots eder bat
daukala erakutsiz, gainera gero eta
seguruagoa da. Zorionak
berarentzako dudarik gabe. Baina
jenialidade pixka bat gehiago ez al
zitzaien falta izan?

Lenka Swidovaren papera
(Dorabella) behar bada paperik
zailena zen Teresa Berganzari
ordeztuagatik bakarrik. Oso ongi
kunplitu zuen, ahots haundi bateko
mezzo bat aurkitu genuen.
Gloria Fabuelek, benetako
sorpresa haundia, bai dramatikoki
bai musikalki ederki egin zuen

dena bere ahots argiarekin.

Gizonen artean, Watson nahiko
motel ari ondoren hobetzen hasi
zen eta ondo egin zuen;

Chaussonnek ere ondo kunplitu
zuen eta, Robertsonek bezala,
paperik pobreenarekin ahots ona
daukala erakutsi zigun.

Orkestra? Ondo kunplitu zuen.
Zuzendariak hasi baino lehen,
kontzertua, orkestren laguntza
arina bilatu nahi izan zuela esan
zuen... momentu batzuetan lortu
zuen. Baina Mozart dugu eta
suabeago jo behar da. (Klarinetea
oso ondo, tronpak ia beti bezala
erruekin eta tinbalak?... Martxa
militar bat besterik ez genuen).

Koruak oso karaktere ona omen
zuen baina sopranoak oso tiranteak
eta gizonen ahotsak ez kokaturik
aurkitu genituen.

Zuzendariaren ideia musikalak
oso argi ikusi genituen berari ba
CHAPEAU esan beharko zaio.

Koreografia ere oso ondo izan zen
idea sinple batzuekin behar zen
giroa lortuz. Badakigu Prahakoek
Mozarten denboratik opera oso
serioak prestatzen zituela eta
dituela.

Oso ideia ona izan zen hizketen
itzulpenak pantailan ematea.

Gaztelaraz agertu zen eta anekdota
bezala ñ, ¿ eta ¡ grafoak ez zirela
agertzen esango dugu.


Oso kontzertu ona. Zorionak
Hababostaldiko antolatzaileei ere.

Emakumeen fidelitasunik eza

Opera kantatzearekin batera ak-
toreek ahotan zerabilten gaiaren ma-
mia jarrai zitekeen pantailan gazte-
lerazko itzulpena irakurritz. Izan ere
gaiak badu mamirik. Ekintza, Napol-
in gertatzen da, kafe batean Don
Alfonso filosofo helduak irakaspen
batzuk ematen dizkie emakumeen
izaeraz Ferrando eta Guglielmo gaz-
teei: Emakumeek beren burua eraku-
tsi nahi izaten dutela eta ez direla
gizonezkoak baino fidelagoak euren
harremanetan. Bi gazteek ez dute
onartzen beren neskak halakoak di-
renik. Don Alfonsok ehun sekietako
apustua egiten die, Fiordiligi eta Do-
rabella ahizpak ere, beste edozein
emakume bezala ezetz fidelak izan.

Don Alfonsok frogatzen du bi pre-
statzen du bi gazteekin batera neskak
fidelitasuna frogatzeko. Bi mutilak
gerrara deitu dituztenaren itxurak
egiten dituzte eta albaniar itxura
ematen dieten moztarrok jaitzen di-
tuzte. Horrela Fiordiligi eta Dorabe-
lla ahizpengana joaten dira haien
amodioa bereganatu asmoz, batak
bestearen neskarena. Hasieran ez di-
tuzte onartzen, gazteak ikaragarri
poztuz, baina Don Alfonsok jarrai-
tzeko esaten die eta poliki poliki
nesken konfidantza eskuratzen dute.

Bigarren agertaldian Ferrandok ez
du Fiordiligi bereganatzea lortzen
eta hala esaten dio Guglielmori. Ho-
nek alderontziz Dorabellarekin
egindako kuttun aldaketaren berri
ematen dio. Ferrando guztiz haserret-
zen da, apustua erdi galdua duelako
eta Dorabellak egindakoagatik; hala
ere maite du oraindik. Don Alfonsok



Wolfgang Amadeus Mozart.

planak aurrera jarrai dezala agintzen
die. Azkenean Fiordiligi ere erortzen
da Ferrandoren eskutan eta bi biko-
teek ezkontzeko erabakia hartzen
dute eta ezkontza izenpetzen dute.
Gerrara joan beharretik libratu direla
eta hor datoz moztarrok erantzirik
Ferrando eta Fiordiligi eta ezkontza-
ko paperak atzematen dituzte, ema-
kumeak harri eta zur utzirik. Dena
prestatuturik zegoela konturatzen dira
emakumeak eta iskanbila sortzen da.
Don Alfonsok frogatu beharrekoaren
berri ematen dienean lagun egi-
ten dira berriro. Opera amaitzen da,
baina ez dakigu zein zeinekin elkar-
tuko den. 'Così Fan Tutte' da De
Ponteren libreto batean oinarriturik
Mozartek egindako azken opera, na-
politar jatorrizko azken opera bu-
foa, Anna alaba hil zeneko atsekabea
arintzea lortu ez zuen opera.